



ARRASATEKO UDALA



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

24

“LANBAI ENPLEGU AZOKA 2016” ANTOLATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA

ARRASATEKO UDALA ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ARTEAN

MARIA UBARRETXENA CID andrea, Arrasateko Udaleko alkatea, Udalaren izenean eta Udala ordezkatzuz.

VICENTE ATXA jauna, Mondragon Unibertsitateko Errektorea, erakunde horren izenean eta erakundea ordezkatzuz.

Batak besteari hitzarmen hau izenpetzeko gaitasuna duela aitortuz, eta kontutan edukita ondoko

AURREKARIAK

- Azken urtetako egoera ekonomiko latzaren ondorioz, langabeziak nabarmen gora egin du gurean, hamarkada batzuk atzeragoko une zailtako zifretara itzuliz (Arrasateko kasuan, 2016ko apirilean 1.503 langabe erregistratu dira, %14,41 langabezia tasa). Arazo honi aurre egiteko asmoarekin, era desberdinetako agenteak ari dira beraien esku dauden neurriak hartzen, artean Mondragon Unibertsitatea eta Arrasateko Udala, bakoitza dagokion esparruan, eta 2014an hasitako elkarlaneko bideari jarraitzeko asmoa agertu dute.
- Arrasateko Udala eta Mondragon Unibertsitateak 2014tik hona elkarlanean aritu dira Lanbai Enplegu Azoka antolatzen, eta 2016koan ere lankidetzan segitzea erabaki dute, lan bila ari diren herritarrei laguntzeko, eta inguruko enpresei euren profesional beharrak bertako pertsonekin bete dezaten aukera errazteko helburuekin.
- Arrasateko Udalak 2016ko aurrekontuan kontu sail bat izendatuta dauka Lanbai Enplegu Azoka finantzatzen laguntzeko.

Azaldutako guztiagatik, erakunde biek

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON
Alkatetza



ARRASATEKO UDALA



HITZARTZEN DUTE:

1. Lanbai Enplegu Azoka 2016 erakunde biek elkarlanean antolatuko dute, adostutako hauen arabera:

NOIZ

2016ko ekainaren 6tik 9ra

EGITARAUA

Ekitaldi osagarriak. Arrasateko Kulturate kultur etxean, ekainak 6-7-8

- Ekainaren 6an, 10:00etatik 13:00etara: Marka pertsonala; zelan atera etekina lan elkarrizketari. Kulturaten.
- Ekainaren 7an, 10:00etatik 13:00etara: Curriculumaren garrantzia lana bilatzeko prozesuan. Kulturaten.
- Ekainaren 8an, 15:00etatik 18:00etara: Hautaketa prozesuetarako prestaketa. Kulturaten.

Azoka eguna. Garaia Berrikuntza Guneko MUko 11. eraikinean, ekainaren 9an:


- Beca eta lan politsetan izena emateko gunea:
 - Debagoieneko Mankomunitatea eta Arrasateko Udala
 - Lanbide Euskal Lan Zerbitzua
 - Mondragon Unibertsitateko fakultateetako lan politsa
 - Mondragon Unibertsitateko ikasle obien elkarte MUkida
 - Mondragon Unibertsitateko lanerako orientazio zerbitzua
 - Novia Salcedo Fundazioa
- Enpresa gunea:
 - 36 enpresen stand-ak informazioa jasotzeko eta curriculumak entregatzeko
- Elkarrizketa gunea:
 - Enpreekin lan elkarrizketa laburrak edukitzeko, aldez aurretik bitzordua erreserbatuta. 36 enpresa inguru.
- Formazio gunea:
 - Alecop
 - Mondragon Unibertsitateko eskaintza
 - Masterrak
 - Etengabeko prestakuntza
 - Lanbide beziketa zikloak.

AURREKONTUA

- Errotulazioa	7.500 €
- Pertsonala	7.000 €
- Komunikazioa	1.500 €
- Klableatnak	1.000 €
- Altzariak eta muntaia	1.300 €
- Mantelak	1.000 €
- Catering	300 €
- Itzulpenak	200 €
- Fungibleak	200 €
- GUZTIRA	20.000 €

KOSTEEN BANAKETA

- Arrasateko Udalaren kontura: 16.000 € (aurtengo gastuaren %80a inguru)





ARRASATEKO UDALA



o MUrren kontura 4.000 € (aurteko gastuaren %20a gutxi gora behera)

2. Arrasateko Udala zertaz jabetuko da:

1. Ekitaldi osagarrietarako lokalak jarriko ditu
2. Lankidetzaren kudeaketa administratiboa izapidetuko du
3. Finantzazioaren zati bat estaliko du (adostutako kosteen banaketaren arabera)
4. Komunikazioa Murekin koordinatuta antolatuko du

3. Mondragon Unibertsitatea zertaz jabetuko da:

1. Azokaren antolaketa lanak burutuko ditu.
2. Azokaren tokia jarriko du
3. Iazko azokaren materiala jarriko du.
4. Finantzazioaren zati bat estaliko du (adostutako kosteen banaketaren arabera)
5. Komunikazioa Udalarekin koordinatuta antolatuko du.

4. Lanbai Enplegu Azoka 2016 bukatutakoan, Mondragon Unibertsitateak Arrasateko Udalari burututakoaren memoria eta likidazio ekonomikoa aurkeztuko dizkio, egindako gastuaren justifikagiriaren / fakturen kopiak erantsita.


5. Arrasateko Udalaren diru ekarpena era honetara ordainduko da: ordainketa bakarrean, gehienez ere aurreikusitako aurrekontura mugatuta, eta likidaziotik ondorioztatzen den kopurura egokituta, Lanbai Enplegu Azoka 2016 ren ekintza guztiak jasoko dituen ejekuzio memoria eta likidazio ekonomikoa Mondragon Unibertsitateak aurkeztuta eta Udalaren enplegu sailaren proposamenez Tokiko Gobernu Batzarrak horri onarpena emandakoan.

Klausulek ezarritakoarekin ados daudela frogatzeko, agertutakoek hiru aletan izenpetu dute agiria

Arrasaten, 2016ko maiatzaren 18an

Maria Ubarretxena Oidek izenpetua
Arrasateko Udala

Vicente Atxak izenpetua
Mondragon Unibertsitatea



10/10/10

10/10/10